

Euskal Herriko txapelduna Urnietan bertan ikusteko aukera, igandean

Julen Gabirondo urnietarra Euskal Herriko sega txapelketako irabazle izan zen abuztuaren bederatzian Asteasun jokatu zen finalean.

Sega denboraldia amaitu da ofizialki, baina bi hitzordu gertatzen zaizkio, eta ez nolanahikoak: Sanmieletan eta Xoxokako jaietan. Herrikideen omenaldia jasotzeko baliatuko dituzte bi lehiak. Lehena, igande honetan eguerdiko 12:30etik aurrera Zabaletako aparkalekuaren gaialdean, Lasarte-Oriako bidean.

Nola daramazu txapeldun izate-arena? Sinesten al duzu dagoneko txapelduna zarela?

J.G.: Neure burua arraro samar sentitu nuen aurreneko egunetan. Lagun eta ezagunen zorionak, komunikabideetatik deiak elkarrizketak egiteko... Kosta zitzaidan sinestea, "nola kanbiatzen den mundua" esaten nuen neure artean. Gauzak normaltzen hasi dira orain.

Europako selekzioen arteko txapelketan ere parte zenuen Loiolan abuztuaren 28an...

J.G.: Suitza, Austria, Alemania, Eslovenia eta Hego Tiroleko segalariekin aritu ginen Euskal Herrikoak. Tirolekoak izan ziren onenak. Lehenbiziko euskalduna izan nintzen, hamahirugarren. Ez gaude ohituta erabili ziren segekin, baina ez dago



Julen Gabirondo urnietarra, igande eguerdian lanean ikusteko aukera izango da.

Sega denboraldia amaitu da baina bi hitzordu gertatzen zaizkio Sanmieletan eta Xoxokako jaietan

zertan aitzakiarik jarri beharrik; indar kontuetan ez gaituzte gailenduko, baina teknika aldetik gure aurretik dabilta hor Europako herrialdeetan. Lehiaketaz gain, oso gustura ibili ginen denok ere. Jende sanoa dabil segan, nonahi! Ikusi egin behar zen nola jardun ginen elkarrekin komunikatu nahian eta ezinean, keinuak eta egiten!

Harrigarria da zure ibilbidea. Orain lau urte hasi zinen...

J.G.: Kasualtatetik izan zuen pixka bat. Xoxokako jaietarako lau segalari prestatu ziren Urnieta eta Hernanikoak apustua egiteko. Batek atzera egin zuen azken momentuan, eta Mikel Garaialdek hor esan zidan: "hi, zergatik ez haiz animatzen?". "Nola ni, sekula ez diat eta sega bat hartu!". Probatzera joan ginen belaze batera. Segaren punta lurretik atera ezinik ibili nintzen, eta barre egiten zidaten ondotik sega egiteko tanke-ragatik. Baina ni egoskorra izan, eta "isildu egingo dizkiat!" agindu nion nire buruari. Behin inplikatzan banaiz zer edo zertan, daukadan guztia ematen saiatzen naiz.

[13. ORRIALDEAN JARRAITZEN DUJ]

Azkartasunezko I. sega erakustaldia

Irailak 20, igandea. 12:30.

Zabaleta aparkaleku goialdea, Lasartera bidean.

Parte hartzaileak:

Julen Gabirondo.

Suharri Irazustabarrena.

Iñigo Mercader.

Jexux Mari Goenaga.

Andoni Urrutia.

Jon Otegi.

Mikel Berakoetxea.

Bixente Mitxelena.

Jexux Mari Ormaetxea "Urki".

Eginbeharra:

1. Banaka 100 m2.

2. Lehenengo 4ek finala.

3. Taldekako 2 proba erreiboka.

Laguntzailea: Urnietako Udala.

Iñaki Aranzadi gogoan



Aurreko ostiralean hil zen, 77 urte zituela. Hutsune handia utzi du urnietar askorengan. Oso maitatua zen Urnietan.

[URNIETA, 2-4. ORRIALDEAK]

Sanmielen atarikoak asteburu honetan

"Begiradak dantzan" Egape dantza taldearen ikuskizuna Saroben, Batusalsa eta bertso afaria larunbatean eta sega desafioa igandean. Jaien atarikoak hitzorduz beterik dator.

[URNIETA, 6-7. ORRIALDEA]

Enplegua sustatzeko deialdia

Andoaingo eta Urnietako enpresei zuzendutakoa.

[ESKUALDEA, 8. ORRIALDEA]

Ingeles Eskola. Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoainen

- Zer eskaintzen dugu?**
 - Haur, gazte nahiz helduentzako eskolak.
 - Cambridgeko PETFCE-CAE azterketatarako prestakuntza, adin guztietako ikasleentzat.
 - Enpresei zuzendutako eskolak.
 - Eskola partikularrak.
- Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.**
- Gazteentzat 2016 eta 2017 EHNZ proiektuak udan.**

Ondarreita, 7 behea. ANDOAIN. 943 300 839. www.andoainenglish.com

IÑAKI ARANZADI GOGOAN | ARRASTO SAKONA UTZI DUEN APAIZA

Urnieta umezurtz utzi du Iñaki Aranzadiren heriotzak

Urnietako gizarte bizitzan erreferentzia handienetakoa zena, irailaren 11n hil zen 77 urte zituenean. Apaiz lanetan ia hiru hamarkadatan aritu zen, eta hark utzitako arrastoa kristautasunetik haratago

doa. Gizarte, kultura eta euskara alorretan aditua eta azkenera arte aritu zen. Aiurri astekariko idatzia izan ziren, esaterako, bere azken sasoiko zereginetako batzuk. Hutsune handia utzi du Urnietan.

Orain bi urte atzera, 2013an, Iñistorra euskaltzaleen biltzarrek *Urnietar Prestu* izendatu zuen. Egun horretan egin ohi den bezala, bazkalostean eta bertsolarien saioaren ostean omenaldi ekitaldiari hasiera eman zitzaion. 2013an Iñaki Aranzadi omenatu zuten, eta hauexek izan ziren haren alde egiteko argudioak. **Jon Unanue** urnietarrak irakurri zituen merituak, euskaltzale elkartearen izenean: “Ez du azken urteetan egin zaion lehenengo omenaldia; aurretik ere eliztarrek, urnietarrek ongi merezitako omenaldirik egin diote, Urnietan 28 urtetan zehar apaiz eta erretoresa gisa egin duen lanagatik. Gaurkoan **Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra** egiten dion omenaldia, oro har, urnietar askoren izenean egin da, euskaltzale izan edo ez, kristau izan edo ez, 28 urte hauetan Iñaki Aranzadik Urnietan eta urnietarrei bere apaiz eginkizunetatik bai, baina areago herritar eta lagun hurko gisa azaldu dien jokabide eta jarrera eskuzabalagatik.

Elizak, eliza katolikoak, izate eta indar ikaragarria izan du Urnietan mende askotan; elizaren jardunak bere argiak izan ditu, baina baita maiz ere itzal izugarriak. Gauza jakina da azken hamarkadetan herritar asko elizarengandik urrunduz



Larunbat arratsaldean egin zuten haren aldeko hileta elizkizuna.

joan dela, belaunaldi berriek bizkarra eman diotela neurri handi batean elizari, ulertu ezinik bere kontraesan ikaragarriak.

Hamarkada zail horietan iritsi zen Iñaki Urnietara, artaldeak bakantzen ari zenean, eta bere apaltasunetik, bere jendartekotasun gozo horretatik, Urnietako elizaren eginkizuna garai berrietara egokitzen hasi zen, itun berriaren mezua eliztarrei biziartzat garai bateko menpekotasunak, mezu meha-

txakorrak eta beldurrak uxatuz, ebanjelioaren zorientasun mezua indarrean jarritz... Urnietako eliztarrek badiote bai zer eskertua...

Baina Iñaki apaiz izateaz gain urnietar bat gehiago izan da; Segurako herriak eman duen urnietarra, Hernanin ere bere sustraia aldatu zituena. Eta herritar gisa beti izan da prest zeinahi ekimenetan lagundu eta parte hartzeko, erretoresa gisa herrian gera zekioken itzalaz herritarren ekintza

eta ekimen ugari laguntzeko eta defendatzeko. Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrekoak gara horren lekuko garbi. Gutako asko ez gintuen elizako bere eginkizunetan hurbil edo inguruan izango; guk, ordea, gure ondoan edo inguruan izan dugu beti, antolatu dugun ekintza bakoitzean eta guztietan. Eta laguntzeko beti.

Beste askok esan dezakete gauza bera Urnietan: jatorriak, sinismenak, koloreak, itxurak edo pentsakerak aintzat hartu gabe guztiekiko izan du Iñakik eskuzabaltasuna eta hurbiltasuna. Zuzentasun etikoz eta jatorritasunez jokatu duzu 28 urte hauetan eta eredu gertatu zara, urnietar askorengan arrasto sakona uzteraino. Horregatik gaur, Iñaki, gure eskerrona, gizon jantzia eta zintzoa izan zarelako, oso urnietar ona; benetan urnietar prestua!!”.

IÑAKI ARANZADIREN ESKER ONEKO HITZAK

2013ko Sanmielelan entzun zituen laudorioei erantzuteko aukera ondotxo baliatu zuen Aranzadik, berriro ere eskuzabaltasunean eta apaltasunean lezio ederra eskainiz: “Denok gure zereginarekin egin dugu aurrera, eta hori mihasgarria da. Nik nerea egin dut, eta zuek zeuena egin duzue. Bertsolariak ere jende asko edo gutxi egon ahalegin batean aritzen dira, eta ni ere bai. Horrela izan naiz zorientasu. Txorakerian edo errutinan erori banintz, okerragoa nintzateke. Neu, gainera, ez naiz apaiz izaten aspertu. Messik milioiak irabaziko ditu baina ni aberatsagoa naiz haurtxoek goizero egiten didaten irriñoarekin edo ongiatorriarekin. Ez naiz gehiago sentitzen, zuekin batera sentitzen naiz eta horregatik eskerrik asko”.

Zer esanik ez dago adierazpen horiek egin eta gero, txalo zaparrada jaso zuela.

BERTSO GOGOANGARRIAK

Bertsozale amorratua izanik, oso gustuko zituen lau bertsolari kantuan aritu ziren 2013ko Iñistor Jaian. Agurrean, denek ere, Iñaki gogoan izan zuten. Bere heriotzean, zentzu handiago hartzen dute bertsolariak egin zioten aitortza:

Iker Zubeldia

Seguratarra naizen aldetik ez daukat kejarik batez. Zuk horrenbeste iskina haiek inork ez baititu maite. Gure herrian emanda zaude zure sinismenen parte, Zegaman ez da inoiz ahaztuko mundua mundu dan arte, Aizkorripeko zizalekuek zure izena daukate.

Uxue Alberdi

Zu ezagutu zintudanetik zortzi bat urte pasatu, baina halere zure irriparra ez da batere aldatu. Ez naiz kristaua eta elizan ez naiz hamar aldiz sartu, baina fede bat badugu biok: gure bertso, gure kantu. Eta bertsoak batu duena ez beza inork banatu.

Unai Agirre

Iñaki degu gizon handi bat elkar hartzeko gaiean, urnietarren errespetua lortu duena aidan. Segurarra nork ez duen maite galdezazute mahaian. Iñaki degu bertsozalea lehengoan esan nahian, meza laburrak egiten zituna txapelketa garaian.

Maialen Lujanbio

Iñaki ia jarri dizute Aita Santuaren trazan. Hura ez, baino zu herriakin bat izateko kapaza. Zu beraiekin zarela esan, gaur zurekin dezu plaza, maite izan dezu herri xehea eta bertsoen jolasa. Mila zorion zuri Iñaki danok festak ondo pasa!

Iñaki ARANZADI TELLERIA jauna,

Apaiza: Segurako semea, Urnietako erretoresa, *Urnietar Prestu* izendatua. Urnietan hil da, irailaren 11n, 77 urte zituela.



Iñaki Aranzadi, zuri agur t'erdia.
Artzain bihotz zabala, zerun gerta bedi.
Gizon xumea bezain jakinduriz handi;
ez dago esan beharrik, bertsoaren kabi.
Maitagarria zinan, hitz eginda garbi,
Urnietar prestua, egiguzu argi!

(F. Argiñarena)



Itxas Euskaltzaleen Elkartea
(Manuel Lujanbio Kultur Batzordea)
Urnietan, 2015eko irailak 15.

IÑAKI ARANZADI GOGOAN | GERTUKOEN AHOTAN

“Estimatzekoa da Iñaki Urnietara etorri izana”

Aurreko ostiralean hil zen Iñaki Aranzadi, eta albistea azkar hedatu zen urnietarren artean. Urte luzetan apaizak harreman sare zabala osatu zuen, eta horregatik bere heriotza oso sentitua izan da.

Ostiral horretan bertan, iluntzean bildu zen San Balentin taldea deitzen diotena. Azken agurrean zein modutara parte hartu, horixe zuten helburua.

Erregeen kabalgararako Iñaki Aranzadik guraso talde bat elkartu zuen aspaldi, eta esperientzia bikain irten zela eta, urtean behin mahaiaren bueltan bilkura egitea adostu zuten. San Balentin eguna aukeratu zuten bilkurarako, erregeen kabalgata amaitu eta hilabete eskasera. Horien artean aurki daitezke **Rosa Elozegi, Joxe Ramon Jauregi, Maripi Sarasola** edota **Baxi**. Aiurrik herritar horien bitartez urnietarren ahotsa jaso nahi izan du.

MENDIZALETASUNAREN SUSTATZAILEA URNIETAN

Hamarkada batzuk atzera, **Rosa Elosegik** oso gertutik ezagutu zuen Iñaki apaiza, harekin batera haurrei doktrina emateari ekin zioenean: “Gazteei doktrina ematen hasi ginen, eta besteak beste mendira eramaten genituen”. **Joxe Ramon Jauregik** apaizaren ezaugarri guztietatik horixe bera nabarmendu nahi du, “herriko gazteak zortekoak izan ziren Iñaki bezalako apaiza gertu edukitzean. Hark urnietar askorengan mendizaletasunarekiko grina piztu baitzuen”. Jauregik bereziki apaizarekin batera Ozako oihanean antolatzen zituen kanpaldiak gogoan ditu, “herriko gazte askok Iñakiri esker Pirinioak ezagutzeko aukera izan zuten”. Gaueko izarrak ikusten, naturarekiko maitasuna sustatzen zuten uge horiek datozkio gogora egun hauetan.

EGUNEROKOTASUNERA ERAMAN OHI ZUEN EBANJELIOA

Taldearen izenean nolabait, hileta elizkizunean hitza hartu zuena **Maripi Sarasola** izan zen: “Gizon handi bat zen, baina handitasun horretan oso apala. Oso gertukoa zen, xumea. Ezagutu zutenek dakiten bezala oso umezalea zen, plazako ume guztiek ezagutzen zuten. Euskaltzalea zen, euskara oinarri



Iñaki Aranzadi Azkorteke ermitan meza ematen, duela bospasei urte.

“Herriko gazteak zortekoak izan ziren Iñaki bezalako apaiza gertu edukitzean. Hark urnietar askorengan mendizaletasunarekiko grina piztu baitzuen”
Joxe Ramon Jauregi

“Erreferente bikaina izan da. Ebanjelioaren mezua liburuetan topatzen genuen, eta Iñakiri esker ebanjelioa egunerokotasunean bizi izan dut”
Maripi Sarasola

“Iñakik bere inguruan talde ezberdinak zituen, jendearekiko harremanak egiteko dohai hori bazuen. Apaiz ezberdina zen, oso gertukoa. Gizon handia”
Baxi

izan du bere bizitzan. Bertsozale amorratua, hiletak edo bazkariak beti bertso batekin amaitzen zituen”.

Fedeari dagokionez, Sarasolak haren aldetik laguntza handia jaso zuela aitortu du: “Erreferente bikaina izan da. Ebanjelioaren mezua liburuetan topatzen genuen, eta Iñakiri esker ebanjelioa egunerokotasunean bizi izan dut. Fedeari zentzua aurkitzen laguntza handia eman zidan. Gure belaunaldikook jaso genuen heziketa klasikotik aldentuta, ikuspegi berri bat ematen lagundu zidan. Egiten dudan horri zentzua ematen”. Oso gertuko izatera iristen zen Iñaki.

Sarasolak eliza ireki baten alde egin zuen lana nabarmendu nahi du. Eta gizarte mailan ere

“Iñakiren bere inplikazioa oso handia izan da. Beharrean zegoen jendeari laguntza handia eman dio, laguntza jasotzen zuen hori sinesduna izan ala ez. Laguntza emateko garaian bereiztasunik ez zuen egiten”.

Deskribapen horretan bat egiten du Rosa Elosegik ere. “Nik bere kristautasuna diferentzetan hartu dut beti, pobreen alde lan egiteko prest agertzen zen beti. Jesusen bizitza beretzat gakoetakoa zen. Ez zion ikusezina zen Jaungoikoari asko erreparatzen, Jesusen alde gizatiarrari baizik. Eta hori bere egunerokotasunean erakutsi zuen. Bere gizatasuna ikaragarria zen. Jesusen bizitza transmititzea bere egunerokotasunera eraman zuen. Laguntza ematea eguneroko jardueratzat har-

tzen zuen. Eguneroko bizitzan erakutsi nahi zuen hori, berdin zion zein jatorri edo pentsamendu zuen”.

Urnietan hainbeste urte eta gero, herrikideek 2010ean omenaldia eskaini zioten. Rosa Elosegik ondo ezagutzen zuen eta bere ustean “ikaragarri ondo egin zion omenaldiak. Xumea izan zen bere bizitzan, baina herrikide asko ikusi zituen alboan. Horietako askok gogora ekarri zizkioten elkarrekin bizi izandako hamaika pasarte. Omenaldiak berari on egin zion, energia erantsia eman zion horrek. Oso gustura bizi zen Urnietan, urnietarrekin. Berak urteetan eman ziguna hortxe azaldu zen, eta esango nuke egun horretan jaso zuela aitortzarik handiena: herritarrena”.

“Herri omenaldiak berari on egin zion, energia erantsia eman zion horrek. Oso gustura bizi zen Urnietan, urnietarrekin”

Rosa Elozegi

HARROKERIA GUTXIKO PERTSONA

Baxi herrikidea San Balentin taldearen sorrera azaltzearekin batera, Iñaki Aranzadiren izakera osatzen lagundu dio Aiurri: “Urnietan kabalgata martxan jartzeko taldea sortu genuen, eta lanak amaitu eta gero baten batek egindakoa bere horretan geratuko al da? bota zuen. Eta horrela San Balentin egunean afaria egin genuen. Geroztik urtero egun horretan biltzen gara, afarirako. San Balentin taldea garelako esango nuke”.

Iñakiren izaera eta bere afizioak ondo baino hobeto laburbiltzen ditu Baxik: “Harrokeria gutxiko pertsona zen, oso xumea. Guregan eragin handia izan duen pertsona da, alor askotan lezio asko eman dizkigulako. Askok berarekin afizioetan bat egiten genuen: perretxikozalea, bertsozalea eta mendizalea zen. Behin erdi gaixo etorri zen gurekin mendira. Garai hartan motel zebilen, baina mendia ikusten zuenean piztu egiten zen. Tartearen mendira jotzen zuen, harentzat mendia terapia handia zen. Bertsozaletasunari dagokionez, Xalbador erabat markatu zuen bertsolaria izan zen. Maiz izaten zuten aipagai, eta bere kantutak askotan erabiltzen zituen. Zaletu amorratua zen.

Iñakik bere inguruan talde ezberdinak zituen, jendearekiko harremanak egiteko dohai hori bazuen. Apaiz ezberdina zen, oso gertukoa. Gizon handia, asko erakutsi digu eta estimatzekoa da Urnietara etorri izana”.

IÑAKI ARANZADI GOGOAN I URNIETARREN AITORTZA

Gizon haundia



JON UNANUE • URNIETA

Ez dut uste inoiz erabili dudarik esapide hori inori buruz hitz egiterakoan, baina, joan den ostiral arratsaldean, whatsapp bidez Iñakiren heriotzaren berri eman behar izan nuenean, horixe sortu zitzaidan, barru-barrutik: *gizon haundi bat hil da, Iñaki Aranzadi.*

Nik Iñaki orain hamazazpi bat urte edo ezagutu nuen, plaza aldera bizitzera igo ginenean, eta geroztik plazan maiz egiten baikenuen topo, elkarrizketa gutxi batzuk nahikoa izan nituen sumatzeko gizon hark bere baitan gordetzen zuen aberastasuna. Zer zen, baina, aberastasun hori? Jakituria? Zintzotasuna? Jatortasuna? Apaltasuna? Zalantza izpirik gabe, oso jakituria handikoa zen, baina ez zuen berehalaxe azaltzen. Besteek zeukaten, bere solaskideek azaltzen zioten egia ezagutu nahi izaten zuen aurrena beti, eta gozogoza hartuko zintuen, hizketarako gaia aterako zuen, entzungo izan behar beste eta gero etorriko zen bere iritzia, bere ikuspegia. Eta hortik aurrera, elkarrizketa nahi beste luza zitekeen...

Gizon argi eta burutsua, inork ez bezala itsatsi zidan hainbat pentsamendu eta jokamolde gogoan, baita bihotzean ere. Edozein gairi helduko zion, baita arantzatsuei ere, gogozabaltasun handiz. Beti begirunez eta zuhur hartuko zintuen, irribarre batekin, baina gaiaren arabera bazekien haserretzen, haserreak gutxi iraungo bazion ere. Inoiz ez zidan galdetu zergatik ez nuen parte hartzen Urnietako kristau elkarrean, bai baitzekien gaztaroan ordu asko elizan ibilitakoa nintzela; inoiz ez zidan galdeatu gure seme-alabek zergatik ez zuten Jaunartzerik edo Kristau-ikasbiderik egin... Eta beti aurkitu nuen prest hizketarako, solaserako, eztabaidarako, ahal zuen lagun-

Elkarrizketa gutxi batzuk nahikoa izan nituen sumatzeko gizon hark bere baitan gordetzen zuen aberastasuna

tza emateko... Eta beti prest bere jakintza eta eskarmen-tuak agintzen zion aholkua eskaintzeko...

Gezurra esango nuke aitortuko ez banu gai batzuekiko begiak zabaldu zizkidala gutiz; maiz bere jokabideak harritu egin ninduela; Ebanjelioaren egia, ebanjelioaren etika lehenago inoiz ez bezala ulertu eta gogopetu nuela Iñakiren irakatsiei esker.

Aurrerakoia, alaia eta bertsozalea, umore onik ere ez zuen falta, ez horixe.

Bere kezkarik biziena haurrekikoa zuen; haurrak ikusten zituen mundu honetan babesgabeen eta haiek maitasunean nola hezi zuen buruhaustea. Horri buruz idatzi zituen bere azkeneko artikulak Aiurri eta horri buruz ere eman zidan irakatsi handirik, inoiz ahaztuko ez dudana.

Gaixotasunak hartu zuen azken urteetan, baina lanari eutsi zion; esan bezala, Aiurriako hainbat lan idatzi zuen eta beste mordoska bat dugu oraindik esku artean argitaratzeko, apurka-apurka argia ikusiko duena bere oroitzapena laguntzeko.

Berarekin izan nituen solasaldiak gordeko ditut betirako gogoan, horiek bai perla!! Hasieran hainbat konturekin ez nintzaion ausartuko, baina azkeneko honetaz eta hartaz gogokidetasun osoz hitz egiten genuen. Urnietako elizari eta eliz-elkarteari, hirurehun urteko hautsak eta ohikeriak kendu zizkion Iñakik gainetik hogeita bost urtetan zehar, eliza eta elkarte hori biziberritzearen.

Berak, jakina, baztertu egingo zituzkeen nik gaur hemen egin dizkiodan laudorioak eta eskuak burura jasoko, apur bat eskandalizatuta, apur bat lotsaz, eta izkin egingo luke desagertzeko. Baina Iñakik itzaliko ez den itzala izan du, luzea, trinkoa, babeslea, artzain on bati, artzain onari dagokiona. Itzal horren babesa izango dugu urteetan!



Bidali Iñaki apaizari buruzko mezua edo gogoeta, eta datorren Aiurri aterako dugu
Idatzi: urnieta@aiurri.com

Agur Iñaki

Urnietako EAJ-PNV

"Iñaki Aranzadi 30 urtez Urnietako parrokoa izan denak betirako agur esan digu. Gaixotasunari ezin gehiago aurre egin eta irailaren 11n joan ziztaizun betirako. Fisikoki joan. 30 urte luze hauetan Urnietan erein duzun haziak bertan iraungo baitu denbora luzean. Elizaren, urnietarren eta herriaren alde lan handia egin duzu. Ikusi besterik ez zegoen larunbata arratsaldean hiletara etorri zen jende mordoa.

Agurrak ez dira inoiz gozoak izaten, baina Iñaki elizatik ateratzen ari zinen momentuan, herritarrek eskaini zizuten txalo zaparrada beroa, sentitua, barru barrutik eskainitakoa, hunkigarria izan zen. Negar malkorik isuri ez zuen gutxi izango zen.

Iñaki, hori eta gehiago merezi duzu. Seguran jaio, Hernanin urte mordoa egin baina dedikaziorik gehiena Urnietan eman eta Urnietan geldituko zara. Euskalzale amorratua; bertsolaritzaren maitalea;

mendirako joatea eta perretxikoak topatzea gogoko zenuena; umeak eta hauei eskaini beharreko hezkuntza ezinbestekoa zenituen. Tertulia kide ederra, hitz egitea nahiz entzutea gustoko zenituelako.

Urnietako eta urnietarrak saiatuko gara merezimendu osoz irabazi dituzun errekonozimenduak egiten, baina sekula ez dizugu itzuliko herriari eskaini dion guztia.

Eskerrik asko. Agur Iñaki. Egun handira arte.

Agur eta ohore Iñaki lagunari

Urnietako EH Bildu

"Iñaki laguna joan zaigu, eliztarrak direnentzat seguru bete ezin den galera dela, baina ezin ukatu herrigintzan gabilitzanentzat ere, sinestun izan edo ez, galera nabarmena dela. Nahiz eta apaizgintza zuen be-

re bizitzako ardatz, euskal kulturegintza eta gizartegintzaren inguruan eman zuen bizia. Gizon handia zen, bere xumetasunean.

Elkartasun handia adierazi zuen bere bizitza guztian zehar, ezereen gainetik solidarioa

zen Iñaki. Ondo adierazi zuen politika neurri jasangaitzak izan direnean ere.

Ezberdintasun guztien gainetik, eskerrak ematea besterik ez dugu.

Agur Iñaki, gogoan izango zaitugu".

Pater



Andoni Urbistondo

Gizaseme handi bat agurtzeko hitzak dira hauek. Handia garaieraz, adimenez, bihotzez, eta noski, arimaz. Iñaki Aranzadi Urnietako apaiza. Pater niretzat. Txantxetan hasi nintzen horrela deitzen, Kantoi taber-

nako txirrindularitza, mendi edo onddo kontuetako solasaldi luzeetako batean. Berak 'periodista' eta 'tenporas' esaten zidan. Jainkoaren ordezkari, ofizialki. Herriaren ikur eta zerbitzari. Denen lagun, inoren aurrerari. Herriaren apaiza.

Denentzat zuen belarria, begia. Bertakoa, kanpoko, euskalduna, afrikarra, katolikoa edo musulmana izan. Esku zabala muturreraino. Justua. Bostere eta hierarkia deserosoei aurre egiten ziena umiltasunez, umoretsu. Bihotzean eraman zituen beti Segura jaiote-

rria, Hegoamerikako gaztetako abenturak, Otzaurte onddo paradisua eta Aizkorri, bere mendi kuttuna. Azken arnasa hartu arte.

San Adriango aterpean eza-gutu nuen lehen aldiz Iñaki. Hecho bailarako mendiak ahotan zituela gozatzen zuen. Eta Giroko etapa menditsuak ikusten. Oianumeko bertso afarietan loari eutsi ezinda. Aiurri bere bizipenak eta jakituria zabaltzen. Urnietan, bere herrian hiltzea izan omen zen bere azken desioa. Urnietarra haren oroitzapena bizirik mantentzea.

Sanmielak

2015 **URNIETA**

Irailak 27

IX. Iñistor jaia

Jakutegi plazan

12:30 IX. Maldan-gorako Iñistorra
Toka Txapelketa. San Juan plazan

14:00 Herri bazkaria.

16:00 Bertsolariak

- Oihana Bartra (Bilbo).
- Beñat Gaztelumendi (Añorga).
- Iñaki Gurrutxaga (Orio).
- Nerea Elustondo (Legazpi).
- Gai jartzailea:
Amaia Agirre (Villabona).

17:00 “Urnietar Prestu” 2015
izendapena
Juxto Egaña txistulari eta euskaltzalea
izango da omendua.

19:00 VII. Maria Arizmendi
irrintzi lehiaketa. San Juan plazan

Helduentzako menua (25 euro)

- Errusiar entsaladilla.
- Itsas-kabra.
- Karrillerak.
- Hojaldrea.
- Kafea.
- Belar txupittoa, whisky edo patxarana.

Haurrentzako menua (16 euro)

- Makarroiak tomatea eta urdaiazpikoarekin.
- Eskalozea txip patatekin.
- Sandwix izozkia.

Bazkarirako txartelak
aurrez erostea ezinbestekoa da.
Azken eguna:
irailaren 24a.

Jadanik salgai daude ondorengo lekuetan:

URNIETAN

- KANTOI tabernan (San Juan plazan).
- GURIA tabernan (Idiazabal kalea).

Antolatzaileak:
Urteko Euskaltzale Elkartea, Euzko Euzkaltzale Elkartea, Euzko Euzkaltzale Elkartea, Euzko Euzkaltzale Elkartea

Laguntzaileak:
Txistulari Elkartea, Euzko Euzkaltzale Elkartea, Euzko Euzkaltzale Elkartea, Euzko Euzkaltzale Elkartea

Babesleak:
Urteko Euzkaltzale Elkartea, Euzko Euzkaltzale Elkartea, Euzko Euzkaltzale Elkartea, Euzko Euzkaltzale Elkartea

Aiurri

SANMIELEN ATARIKOA

“Begiradak dantzan”, ostiral honetan Saroben

Egape dantza taldeak parte hartze handia izan ohi du Sanmieletan. Ekainean arrakasta handiz aurkeztu zuten “Begiradak dantzan” ikuskizuna ostiral honetan eskainiko dute berriro.

Herrikide asko gogotsu dago. Ez ikuskizun horretarako bakarrik, baita astebete geroago aurkeztuko duten “Urnieta hegapean” emaldia ikusteko ere.

Udako geldialdiaren ostean, entseguetan murgilduta dabiltz asteon Egape dantza taldeko kideak. Ostiraleko ikuskizuna prestatzen edo, beraiek azaldu bezala, “bergogoratzen” ari dira orain. Edu Murua-meniarazek osatutako muntaia 15 koreografia berritzailek osatzen dute, eta azaldu dutenez, begiradak dantzan jarriko dituzte. Maskarak erabiliko dituzte dantzatzeko eta, muntaia osoari zentzua emanez, dantzen lotura-haria izateko. Hortaz, begiraden jokoa nagusituko dela diote.

EKAINEKOAZ BERRIRO GOZATZEKO AUKERA

Aurreko ikasturte osoan zehar ikuskizuna prestatzen ibili dira, kurtso amaieran jendaurrean egiteko. Orain, bigarren txanda dute eta jaien atarian, herrikideei saioa berriro ikusteko aukera eskainiko diete. Irakasleak azaldu duenez, maila altua dute dantzariak eta ikuskizunean hori igarriko da. “Pena handia ematen dit urte osoko lana hemen amaitzea, baina normala da ikasturteko ekintza izanik. Urrian, beraz, gauza berriekin hasiko gara”, gaineratu du.

Sarrerak dagoeneko salgai daude Sarobeko bulegoan hiru euroren truke. Egunean bertan, ikuskizuna hasi baino ordu erdi lehenago jarriko dituzte.



Aste honetan entseatzeko ari dira “Begiradak dantzan” ikuskizuna. Ostiralean eskainiko dute.

“URNIETA HEGAPEAN” ESTRAINALDIA

400. urteurrenaren harira, Egapeko dantzarien bidez Urnieta-ko zenbait toki erakusten dituen bideoklipa egin dute. Irailaren 25ean aurkeztuko dute Txosnagunean. Pixel enpresaren laguntzarekin egin dute, eta bideo “ikusgarria eta herritarrentzat altxorra” izango dela aurreratu du Jaione Jauregik.

“Ni ez naiz urnietarra, eta harrituta geratu nintzen toki horiekin. Urnieta-ko txoko berezietan egon gara: mendialdean eta toki aldatatsu eta haitzetan dantzan”, azaldu du

Edu Muruamendiarazek. Jaio- nek gaineratu duenez, urnietar gehienek ezagutzen dituzte toki horiek, baino gazte asko harrituta geratuko dira horiek Urnietan daudela ikusita.

Herritarrek ikusteko gogoz daude, baina baita parte hartzaileak ere. 70 lagun ibili dira grabaketetan eta guztiak emaitza ikusteko gogoz daude. Edu eta Jaione azaldu dutenez, parte hartzaile guztiak ager zitezen saiatu dira, beren burua bideoklipetan ikusi nahian baitaude: “Zailena den irudiak agertuko direla ziurtatzea izan da. Helburua Urnieta erakus-

tea bada ere, parte hartutako dantzariak eskertza modura, denak agertzen saiatu gara. Denak etorri ziren dantzara, eta merezi dute”.

Bideoklipetako abestia fandango bat da, Korrontziren “Xoxua” bertsoa. 400. urteurrenaren ereserkia egin duten arren, “zailagoa” zela eta zerbait “alaiagoa eta dinamikoagoa” egitea erabaki zuten. Hala, irudi asko jaso dituztenez, ereserkiarekin agian making-off moduko bat egingo dutela bururatu zaie: “Hori aurrerago ikusiko da. Orain herritarrei bideoklipa gustatzea nahi dugu”.

400. urteurrenaren harira, Egapeko dantzarien bidez Urnieta erakusten duen bideoklipa irailaren 25ean aurkeztuko dute

“Begiradak dantzan” Irailak 18, ostirala

19:00. Sarobe. Egape dantza taldeko 40 dantzarien eskutik; 15 koreografiekin osatutako ikuskizuna.



“Urnieta Hegapean” Irailak 25, ostirala

20:30. Txosna gunea. Urnieta herriaren argazki bizia Egape dantza taldearen oinatzetan, Urnieta herri izaera lortu zuela 400 urte betetzen direnean.

Dantza-Soka Irailak 27, igandea

20:30. San Juan plaza. Herritar orok partu har dezake. Koreografia prestatzeko entseguak irailaren 21etik 24ra Saroben, 19:00etatik 20:30etara.

Filma Irailak 27, igandea

21:30 Txosna gunea. “Zuloak” (2012) dokumentala, Fermin Muguruzak Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuena.



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
Aiurri

Udako jaien albistegia Aiurriko webgunean:

- Argazkiak, bideoak eta kronikak ikusgai
- Jarrai itzazu Sanmielak 2015
- www.aiurri.com webgunean
- **Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak**

SANMIELEN ATARIKOA

Batusalsa, perkusio eta dantza festa

Larunbat honetarako, irailak 19, "Batusalsa" eguna antolatu du Buruntzantzan taldeak. Batukada tailerra eta Kubako salsa dantzen ikastarotxoak egingo di-

tuzte Egapen. Eguerdian, kalejira eta paella jatea izango da partaideentzat. Gau partean, berriz, Son Kanela musika taldea zuzenean arituko da.

Sanmielen atariko hitzorduak asteburu honetan



Irailak 18, ostirala

19:00 Dantza ikuskizuna: "Begiradak dantzan" Egaperen eskutik.

Irailak 19, larunbata

09:30-12:00 Probintzia mailako bolo txapelketa, bolatokian.

10:00-13:00 Batukada tailerak Egape ikastolako aparkalekuan.

11:00-13:00 Toka eta bote txapelketa, aparkalekuan.

13:00-14:00 Batukada ikastaroan ikasitakoarekin, Toketada.

16:30-19:30 Kubako saltsa tailerra.

20:00-22:00 Son Kandelarekin dantzaldia.

21:00 Miela batzordearen eskutik, bertso afaria Oianumen Agin Laburu eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolarien parte hartzearekin.

Irailak 20, igandea

09:00-13:00 Plater tiroketa txapelketa Arkalen.

09:00 Pintura lehiaketa, ize-na ematea. Argibide guztiak, oinarriak urnieta.eus webgunean.

10:00 Extremadurako produktuen dastaketa.

12:00 Extremadurako dantza eta koru emanaldia.

12:30 Sega erakustaldia, Zabaleta kaleko aparkaleku inguruan.

19:00 Pintura lehiaketaren sari banaketa ekitaldia Lekaion.

Gehigarri berezia

Datorren Aiurri astekariarekin batera, Urnietako jaiei buruzko gehigarria argitaratuko da.

Batukada eta salsa uztartuz, egun osorako egitaraua aurkeztu dute antolatzaileek. Goizeko

10:00etan batukada tailerra izango da 14 urtetik gorakoentzat. "Instrumentu batzuk handiak direnez, adin muga hori jarri dugu, perkusioa jotzeko arazorik izan ez dezaten", azaldu dute. Bertan ikasitakoarekin, kalejira egingo dute herrian zehar.

Fran Bravok adierazi duenez, goizeko tailerra nahikoa izango da jotzen ikasteko: "Ezagutza minimo horrekin kalejira egitea posible da, eta gainera, gainontzeko batukadak laguntzeko egongo dira". Izan ere, ez dira perkusioa jotzen arituko diren bakarrak, kanpotik hiru batukada ere etorriko direlako. Batukada topaketa egitea zen hasierako asmoa, baina, egun osoan erritmo eta musika bera entzutea pisutsuegia izan daitekeela pentsatuz, salsarekin nahastea bururatu zaie. Horrela, goizean batukadaren txanda izango da eta arratsaldean salsarena.

PAELLA JATEA BATUKADAKO PARTAIDEENTZAT

Salsa tailerra baino lehen, ordea, paella jatea izango dute. "Batukadan parte hartzen duenak sari bezala paella izango du. Egun osoa elkarrekin igaroko dutenez, giroa sortu eta elkarrekin gustura egoteko baliagarria izango da", azaldu dute. Arratsaldean, salsa dantzen klasetxo bat emango du Joxan Beldarrainek 16:30ak aldera. Horren ostean, dantzaldia izango da Son Kanela musika taldearekin eta, beraz, ikastaroan ikasitakoa kontzertuan praktikan jartzeko aukera izango dute.

HERRITARREI PARTE HARTZEKO DEIA

Urnietarrak animatu nahi di-



Lasarte-Orian batukada bilkuran izan zirenekoa.



Fran Bravo eta Joxan Beldarrain Batusalsa jaialdiko antolatzaileak.

"Festak gozatzeko dira eta Batusalsa eguna herritarrek disfrutatzeke antolatu dugu"

Fran Bravo

"Batusalsak nolako eragina izan duen ikusiko dugu, errepikatzeak merezi duen ala ez erabakitzeke"

Joxan Beldarrain

tuzte, bai musika jotzera baita dantzara ere: "Festak gozatzeke dira eta Batusalsa eguna herritarrek disfrutatzeke antolatu dugu", azaldu du Fran Bravok. Gainera, inongo ezagutzarik ez dela behar jakinarazi

dute, oso oinarritzko pausoak ikasiko dituztelako. Batukadari dagokionez, erritmo berria sortu dute espreski, joaten denarentzat erraza izateko; eta salsa tailerrean ere "hankak apur bat mugitzen" irakatsiko

"Batusalsa" Irailak 19, larunbata

■ Irailaren 19an Urnietan, Buruntzantzan taldeak antolatuta, Batusalsa eguna ospatuko da. Horra, egitaraua:

10:00-13:00 Batukada tailerak 14 urtetik gorakoentzat.

13:00-14:30 Ikasitakoarekin toketada herrian zehar.

16:30-19:30 Kubako saltsa tailerra.

20:00-22:00 Dantzaldia Son Kanela musika taldearekin.

dietela azaldu du **Joxan Beldarrain** irakasleak.

Lehenengo aldia izan arren, jendea animatzea espero dute eta, honela, aurrerantzean horrelako ekintza gehiago egitea: "Aurten Batusalsak nolako eragina izan duen ikusiko dugu, baita eguna errepikatzea merezi duen ala ez ikusi ere". Gainera, jendeari batukada eta salsa probatzeko aukera eskaintzen diotenez, agian norbait urtean zehar ere animatuko dela pentsatu dute. Beraz, bide batez, batukada taldera eta salsa ikastaroetara gonbidatu dituzte herritarrek.

Sarobeko ikastaroetako izen ematea, amaitzear

Gimnasia hipopresiboa, pilates, yoga, defentsa pertsonala, gazte funky,... Saroben eskaintzen dituzten ikastaroetan izena emateko epea ostiral honetan amaituko da. Aurreko astean ate irekiera jardunaldietan, jarduera ezberdinetan proba egiteko aukera eskaini zuten. Bada,

ideiak arrakasta handia izan du urnietarren artean, 116 pertsonak parte hartu baitzuen proba saio horietan.

- Matrikulazioa: Irailak 9-18, biak barne.
- Ikastaroen hasiera: Urriak 5, astelehena.
- Sarobe: 943 00 80 42.

Antzerki tailerra urriaren 9an abiatuko da

Tailerra ostiralero burutuko da, iluntzeko 19:00etatik 21:00etara. Horrez gain, hilean behin larunbatarekin ere elkartuko dira. Ikasturtea hiru zatitan banatu dute:

prestakuntza fisikoa, adierazpen dramatikoak, eta ikasturte amaierako antzezlanaren prestaketa. Izen-ematea Saroben bertan egin behar da.

Euskara ikasteko aukera Hernanialdeko AEK-n

Taldean nahiz autoikaskuntza bidez aritzeko aukera dago eta euskara ikasi edo hobetu nahi duen guztiak du lekua bertan: familian, lagunekin nahiz kalean euskaraz bizi nahi dutenek, umeak euskaraz hazi nahi dituzten gurasoek, lankideekin euskaraz aritu nahi duten langileek, euskara azterketaren bat gauditu nahi duen edonork, euskara ahaztua izan eta hitz eginez berreskuratu nahi duenak... Azken batean, egunerokotasunean euskara txertatu edo hobetu nahi duen edonork. Goiz, eguerdi, arratsalde eta iluntzetan izango dira klaseak. Matrikula kanpainarekin bat eginez,

Astigarragako AEK euskaltegiak irailean zehar argazki erakusketa antolatu du: "Pasaden ikasturtean euskaltegian aritu ziren ikasle eta irakasleak dira protagonista argazki erakusketan. Bertan, urtean zehar ateratako argazkiak dira ikusgai; eskolak, zilegi eskolak, afariak, irteerak, besteak beste. Era horretan Astigarragako herritarrek animatu nahi dira euskara ikastera eta, aldi berean, euskaltegiko giro ezin hobea ezagutzea. Argazkiak herriko zenbait tabernetan aurki daitezke hil honetan zehar. Beraz, hurbildu Astigarragara, baita AEK euskaltegira ere!".

Plenoa irailaren 22an

Sanmielak direla eta, iraileko Udal batzaraldia astebete aurreratuko da. Beraz, dato-

rren asteartean Udal ordezkariak bilkura egingo dute 19:00etatik aurrera.

Errenazimenduko dantzak eta ingurutxoak

Urriaren 4an, Aurrera Gure Ametsa dantza taldekoek ingurutxoak dantzatzuko dute. Ikasi eta parte hartu nahi duena entseguetara ager daiteke. Asteazkenetan 18:00etatik 19:00etara zahar goitizan biltzen dira. Bestalde, udalerriaren 400. urteurrenarekin bat eginez, taldeak errenazimendu garaiako dantzak eskainiko ditu

San Juan plazan. Parte hartzeko, horra entsegu egunak: Asteazkenero, 19:00etatik 20:00etara zahar egoitzan. Ostiralero, 17:15etatik 18:15era Saroben. Iragarritako hitzorduen inguruko informazio gehiago lortu nahi duenak bi aukera ditu:

- 674 252 581
- agaurnieta@gmail.com

Presentacion de Maria ikastetxeko Haur Eskolak 25 urte

Urteurren borobila

Aurtengo ikasturtearen hasiera ez ohikoa izan da Presentacion de Maria ikastetxean. Ospakizunekin abiatu dute, abian jarri zuteneko 25. urteurrena ospatzen delako. Aurreko larunbat goizean bertaratu ziren guztiak 25. urteurrenako horma irudian argazkia egin eta gero, ikastetxeko ikasleek astean zehar eskolako horman egindako murala eza-gutu zuten. Jarraian, eskolaren atarian urteurrena gogoan hartuko duen plaka erakutsi zuten. Ikastetxeko kideentzat une hunkigarria izan zen hura. Adierazpenen txanda iritsi zen ondoren. Hurrenez hurren, honakoek hartu zuten hitza: **Maria Teresa Fernandez** Haur Eskolako sortzaileeta, **Mikel Pagola** alkatea, **Martin Iztueta** eskolako zuzendaria eta **Mikel Ormazabal** Kristau Eskolako zuzendaria. Ikasleen parte hartzea ere oso kontuan hartu zuten, eta bertan zirenek gogotik txalo egin



Une polit asko izan ziren urteurrenako ospakizunetan.

zieten dantzari eta bertsolari gazteei. Urteurrenako antolatzaileek aitortu dutenez, larunbat goizeko ekitaldiarekin ospakizunei hasiera zoragarria eman zioten. Ospakizunek jarraipena izango dute hurrengo egunetan:

Irailak 17, osteguna
17:00 Lekaion hitzaldia: Sexismoa eta berdintasuna. Fernando Oregi.

Irailak 18, ostirala
19:30 Triki-potea: Guria, Zaldu, Egur.

Irailak 19, larunbata
10:00-12:00: Ibilaldi neurtua.
11:30-13:00: Jolasak.
12:30-14:00 Paella lehiaketa.
14:00-15:30 Bazkaria.
14:45-15:45 Tailerrak.
16:00-17:00: Zumba.
17:00 Ospakizunaren amaiera.

Etiopiako Wukro aldera abiatuko da ostiral honetan

Paulis, Afrikarako bidean

Ioritz Paulis urnietarra Wukro aldera abiatuko da ostiralean eta bertan igaroko ditu ondorengo hiru hilabeteak. Informatika eta Lehen Hezkuntzako irakasle ikasketak egin dituenez, informatikako tailerrak emateko edota ordenagailuen konponketa egiteko asmotan doa: "Bertara iritsi arte ez dut jakingo ziur zertan ariko naizen, baina perfil horretako teknikari bat lagungarri izango zaiela esan didate". Ioritzek azaldu duenez, lagun artean behin baino gehiagotan bururatu zaie ikasketak amaitutakoan aukera paregabea litzatekeela bolondres gisa norabait joatea. "Airean geratzen diren eta jadanik ahaztuta ditugun plan zehaztugabeak dira, baina Urnietako proiektu honekin aukera



Ioritz Paulis urnietarra.

erreal bat nuen eskuartean". Aukera hori baliatuz, Etiopia-Utopia fundazioari esker, beste kooperante baten konpainian joango da bertara eta ahalik eta gehien irakasten saiatuko dela dio. Ioritzen helburua autonomoago iza-

ten erakustea da: "Ni itzulitakoan irakatsi diedana beraien kabuz egin badezakete, pozik egongo nintzateke", aitortu du.

Irakasteko gogoz dago, baina esperientziak ikasteko ere balioko diola sinesten du: "Horrelako kasuetan maiz esaten da guk haiengatik egin dezakegunaz, baina askotan ahazten zaigu guk geuk beraiegangandik ere ikasi egin dezakegula. Esperientzia honek nire bizitzan ekarpen handia egin dezake". Erosotasunetik eta egunerokotasunetik alde eginda, ohituta ez dagoen egoerei aurre egin nahi die, pertsona bezala hezteko "onuragarria" izango zaiolako.

Urnietako misio batzordeak eta Udala dira egitasmoaren sustatzaile nagusiak.

65EKO KINTOEN OSPAKIZUNA

1944. urtean jaio, eta 1965. urteko kinto direnak aurten betetzen dute 50. urteurrena soldadutzara joan zirenetik. Hori dela eta, aurten modu berezian ospatu nahi dute urtero egiten duten elkartasunezko bazkaria.

Irailaren 27an, igandearekin, Gipuzkoa osoko kintoak elkartuko dira Urnietako Oianume sagardotegian. Honakoa da egun horretarako prestatu duten egi-

taraua: 12:30etan, DIVA eta Oianume sagardotegiak antolatutako herri kirolen emanaldia, Oianume jatetxearen atarian. Bertan, izango dira erakustaldi bat eskaintzen, Luis Txapartegi eta Aritz Mugertza aizkolariak, baita ere, Jon Unanue (Goenatxo III.) eta Xabier Aranburu (Uzta) harrijasotzaileak.

14:00etan, bazkaria Oianume sagardotegian. Bilkura, erromeria giroan buka-

tuko da. Iparraldeko Adartza taldea izango da bertako giroa alaitzen.

Aurtengo ospakizun honek izango du beste berezitasun bat ere, hau da, edonorentzako irekia izango dela, beraz, ez dago 65eko kintoa izan beharrik bertan parte hartzeko. Izen emateko Oianumeko sagardotegira deitu behar da aldezturik. Bertako telefonoa: 943 55 66 83.

Banaiz bagara elkartearen ekimena La Salle ikastetxean

Oinarrizko euskara trebatzeko ikastaroa

Andoaian bizi den etor-
kin talde batek ezaug-
garri bereziak zituen
euskara ikastaroan
parte hartu zuen opor
aurretik, **Banaiz Bagara elkartek**
antolatuta. Bi astetan zehar, goi-
zero bildu ziren **La Salle-Berroz-
pen, Edurne Arzelus** irakaslearen
ardurapean. Europa, Asia eta
Afrikako ikasleak bildu ziren,
honakoak, Moulay Ely Mohamed
(Sahara), Mohamed Salek (Saha-
ra), Rachel Manu (Nigeria), Mai-
la Baalla (Maroko), Ruda El
Grazi (Maroko), Yubaraj Tha-
kuri (Nepal), Boyana Docheva
(Bulgaria) eta Fatima Caño
(Andaluzia).

Euskararen oinarrizko ikasketan murgildu ostean, beren herrialdeetan tipikoak diren jaki eta edariekin agertu ziren azken egunean, eta ikastaroari agur gozoa emateko ez ohiko festa ospatu zuten.

Arzelusek adierazi duenez, "Helburutzat ez genuen jarri euskara ondo ikastea, oinarri-ko komunikazio egoeratan txukun moldatu ahal izateko hizkuntz baliabideak eskuratzeta baizik". Ostalaritzan lan egin dutenak edo egiten dutenak izan ziren ikasle gehienak, eta lan sektore horretara bideratu ziren ahaleginak. "Taberna batean sor litezkeen egoerak jorratu genituen: bezeroen eskaerak ulertzea, erantzun ahal izatea, edo eta taberna barruko antolaketak elkarriketa txikiak egin ahal izatea, hala nola, "hartu plater hau", "eraman botila hori", "lagundu honetan edo beste horretan"...

Ostalaritzaren testuinguru horretan ematen diren egoerak simulatuz, esaldiak ahoskatzea, errepikatzea... izan zen ikastaroaren oinarria.

EUSKARAZ BIZITZEN HASTEKO MOTIBAZIOA

Beren burua behartuta ikusten dute euskaran murgiltzeko, eta antzeko motibazioa eraman zuten gehienek ere ikastarora. Andoainen bertan euskara entzuten dute kaleetan, badituzte haurrak euskarazko eredueta eskolatzen dituztenak... "Azken batean, kontziente dira euskararen errealitateaz. Konturatu dira euskara jakinda gizarte horretan egokiago integratuko direla eta gainera, errazago topatu ahal izango dutela lanpostua".



Taldeko zenbait kide jatetxeko egoera irudikatzen Edurne Arzelus irakaslearekin.

*“Oinarrizko komunikazio
egoeratan txukun molda-
tu ahal izateko hizkuntz
baliabideak eskuratzea
helburutzat jarri genuen”*
Edurne Arzelus

*"Egunero zeozer gehiago
ikasi nahia agertu zuten,
ulertzea kostatzen zitzaaien
horri buruz galdetzeko
interesa agertuz".*
Edurne Arzelus

Ikastarora oso gogotsu joan dira ikasleak, Arzelusen esanetan: "egunero zeozter gehiago ikasi nahia agertu zuten, uler- tzea kostatzen zitzaizkien horri buruz galdetzeko interesa agertzen dute beti".

Ikastaroak oso filosofia baikorra erabili duela egunez egun, aitortu du Edurne Arzahlusek: "ikasteko zer falta zai-gun begiratu beharrean, ikasi dugun gauza txiki horretan zentratu gara. Dakiguna erabiliz eta baloratuz gero, gehiago ikastera motiba daitke pertsona bat. Ezin du ondo ikasi horrek azkenean edonori blokeatu besterik ez du egiten, eta hobe da baztertzea".

ESALDI LABURRAK EGUNEROKOTASUNEAN

Esaldi edo hitz bakar bat egunean ikastea, pauso handia izan daitekeela azpimarratu du Arzelusek. "Ikasitako gauza funtzional txiki hori egunero erabiltzeko konpromisoa hartzen badute, esaterako, kafea euskaraz eskatzen badute, eta ohitura bihurtzen badituzte horrelako ekintza txikiak, goiz ala berandu helduko zaizkie emaitzak. Ikusten badute beren burua kapaz dela bere ingurukoekin harremana izateko, zure haurrarekin, beste gurasoekin, bizilagunarekin... gutxieneko maila batekin, animatuta sentituko dira aurrera egiteko".

ZAILTASUNAREKIKO AURREIRITZIAK

Tertulia politik egiteko aukera eduki dute ikastaroak iraun duen denboran, eta besteak beste, euskara ikasteko zaila dela dioen uste horren gainean hausnarketa egiteko para eduki dute. "Guztion iritziaz kontrastatu egin ditugu, eta ohartu gara aurreiritzia dela hein handi batean; uste hori gaztelania besterik ez dakienak zabaldu duela maiz. Munduan zehar ibili denak eta hizkuntza bat baino gehiago ikasi duenak —eta hori da ikastaroko partaideen kasua, gehienetan—, igual alfabeto berri bat ikasi behar izan du (txinera, japoniera...), eta alde horretatik euskararekin egina daukazu lan hori. Egia da euskara jatorri ez indoeuropearreko hizkuntza den aldetik, errazago egingo zaiola espainiera frantsesa ikasi duen atzerritar bati. Baina hizkuntza bezala, objektiboki, ez daukala zailtasun berezirik aitortzen zuten askok; aditzetan oso erregularra dela, besteak beste. Taldeko Yubaraj Thakurik une batean adierazi zuen baikortasuna eta borondatea da gehien kontatzen duena, azken finean: bere ama hizkuntzatik abiatuta, beste zenbait hizkuntza ikasi ditu Europan. Bizipen pertsonal hori kontuan hartuta, zergatik ez da, bada, euskara ikasteko gai izango?"

Errefuxiatuen auziari buruzko adierazpena

Udalak babes herrien sarera batzeko konpromisioa hartu du, ahobatez onartu duten adierazpen instituzionalean.

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Europako herrialdeetarako migrazio fluxua errealtate geldiezina da azken urteotan, besteak beste, jendarte zibila gogor zigortzen ari diren gerra eta gatazken ondorioz. Egoera honetan ihes egitea besterik ez zaie geratu euren bizitza salbu jarri nahi izan duten herritarrei.

Haiei herrietatik ihesi datozen milaka eta milaka pertsonen heriotza eragiten duen egoera dramatiko baten aurrean gaude, eta horrela izanik, mendealdeko agintarien ezintasuna eta geldotasuna gero eta nabariagoa den honetan, mundua ezin da leku-ko isila izan.

Errealitate berri honen irtenbidea konplexua dela jakinik ere, eta oraindik herri bakoitzak hartu beharreko errefuxiatu kopurua zehaztu ez bada ere, uste dugu Erakundeen erreakzio azkar bat beharrezkoa dela.

Elkartasun adierazpen hau ez da gizatasun kontua soilik; arrazoi ezberdinengatik kanpora joan edota erbesteratu politiko bilakatu behar izan diren milaka euskaldunek jasotako elkartasunaren ordai-

na ere bada. Honengatik guz-
tiarengatik, Andoaingo Uda-
lak honako Institutuzio Adie-
razpena aurkezten du:

- Andoaingo Udalbatzak, babes-herrien sarera batzeko konpromisoa hartzen du, horretarako harrera dispositiboak prestatuz eta herri-tarren inplikazioa sustatzeko lana eginez.
- Krisi humanitario honen aurrean modu aktiboan, elkartasunez eta giza justiziaz jokatzeko exijitzen diegu Europar Batasuneko estatu kideetako agintari eta gobernu-uei; era berean, gerra hauetatik ihes egiten duten eta tragedia honen biktimak diren pertsonak hartzeko beharrezko bitartekoak bi-dera ditzatela ere galdegi-tzen diegu.
- Udalak munduko hainbat tokitan gertatzen ari diren gatazken eraginez lekualda-tzera behartuak ikusi diren pertsonak babesteko plan bat osatzea eskatzen die gainerako euskal instituzio-
ei, babes-herrien sarearekin bat egitea erabakitzen du-ten herriei beharrezko sos-tengua emanez.
- Udalbatzak gainerako Era-kunde zein udalerriekin el-karlanean aritzeko konpro-misoa hartzen du, babes sa-rea artikulatu eta handitze-ko helburuarekin.





‘ANDOAINGI GUDUA 1837’ ANTZEZLANA ANDOAINGO KALE ETA PLAZA NAGUSIETAN

“Begira, orain, zer den Andoain; begira orain”

Beste behin ere ikuskizun bikaina eskaini zuten dozenaka herritarrek, Larramendi Bazkunak bideratutako “Andoaingo Gudua” ikuskizunean. Antolatzaileak hain kezkatu zituen euria ez zen

agertu eta horri esker Andoaingo plaza eta kale nagusietan liberalen eta karlisten arteko borrokaldiak ikusteko aukera izan zen. Ehunka ikusle bildu zen herriko txoko ezberdinetan.

Ehunka herritar hil eta baserriak kiskalita, karlisten gudarosteak liberalak gairatzea lortu zuen. Azken hauek, soldadu atzeritarak, elizan gotortu ziren. Errendizioa eskatu bazuten ere, haietako asko bertan hil zituzten. Hauxe da Goikoplazan antzeztu zuten azken eszena:

Brigida herritarra: “Beraiek ez ziren geldirik egon baina, baserria erre eta azienda osoa ohostu zidaten niri. Orain ez du errenditziak balio!! Ez do koartelik su ematen dubenentzat!!”.

Antonio herritarra: “Ez do koartelik ez!! Baserriak lapurtu eta erre dizkigute, aziendak lapurtu edo hil, eraso egin digute; zeru eta lur utzi gaituzte, eta orain libre!! Ez jauna ez!!”.

Herritarrak: “Libre, ez horixe!!! Ezta pentsatu ere!!”.

Alkatea: “Hildako hauek guztiak nahi al dituzue zuen kontzientzia!! Hauek gaizki jokatu dutela eta zuek beste horrenbeste... Baina ez al dezue ikusten nola gelditu den herria? Gaizkileen pare jarri behar al degu guk ere? Begira, orain, zer den Andoain; begira orain”.

Begira Andoain kantaren doinuarekin amaitu zen ikuskizuna, herritarren txalo artean.



O'Connors liberalen buru (Roger Wesney) lurtean zerraldo dagoela. Une horretan Andoaingo alkatea (Joxeba Lizeaga) herrikidei erreguka ari zaie, heriotz gehiago egon ez dadin.

UDALAREN AITORTZA PARTAIDE ETA ANTOLATZAILEEI

Andoaingo Udalak Manuel Larramendi Kultur Bazkuna eta Andoaingo Guduan parte hartu zuten eragile guztien lana txalotu du, ohar bidez: "Pasa den larunbatean, irailaren 12an, bolbora usain eta tiro-hotsak izan ziren protagonista gure herriko kaleetan zehar. Andoaingorrok 1837an karlista eta liberalen artean gertatutako liskar bortitzen antzezpenez disfrutatu ahal izan genuen. Antzezleek ikuskizun bikaina eskaini ziguten.

Udal gobernutik gure zorionik beroena eskaini nahi diegu antolatzaileei. Herriko hainbat elkarte eta talde horrelako egitasmo indartsuan elkarturik ikustea oso poztekoa da. Hala-ko ekimenetan eta herrian antolatzen diren bestelako egitasmoetan ikusten denez, gure herriak sekulako kultur emaria dauka; zentzu horretan, oso eskertzekoa da Manuel Larramendi Kultur Bazkuna bezalako elkarteak antolaketa, zuzendaritza eta gidaritzaren lan mardula beregain hartzeko prestu egotea. Ikusten denez, herrian sorburu duten ekimeneek sona handia eta harrera ona dute herritarren artean, eta etorkizunean ere, hala izatea espero dugu”.



Inguruko zubi eta kaleetara begira, argi ikusten da ikusle ugari hurbildu zela ikuskizunaz gozatzen.



Kanoia eta eskopeteroak, Andoaingo Guduari ikusgarritasuna eman zioten elementuak.



‘ANDOAINGO GUDUA 1837’ ANTZEZLANA ANDOAINGO KALE ETA PLAZA NAGUSIETAN



Atanaxi kinkila-saltzailea (Pilar Rodríguez), salatari izan zelako hainbat liberalekin fusilatu zuten.



“Ez dago kuartelik su eman dutenentzat” oihu eginez, herritarrek Goikoplazarako bidean.



O'Donell jenerala (Juan Karlos Erasun), gerora hilko duten ofizial liberala entzuten (Julio Nogales).



“Nikola” eta “Antonio” herritarrek, alboan alkatea eta beste zenbait herritar dituztela, Zumea plazan.



Ikusle ugari hurbildu zen antzezlanaren azken emanaldira, Goikoplazara.



Alberto Agirre abesbatza Goikoplazan kantari, ikuskizunaren amaiera aldera.



Zumeatarra elkarteko hainbat kide dotore jantzita. Galtzaileen papera antzeztu zuten.



Txillipituarekin kaleak girotuz aritu ziren liberalez jantzitako musikari gazteak.

Euskal Herriko sagardo txapelketa herrikoia



Euskal Herriko I. Sagardo Txapelketa herrikoia jokatu-ko da irailaren 26an, iluntze-ko 20:30ean hasita Azpeitiko Berdura plazan. Azpeitiko Sagardozaleen Elkarteak eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak antolatu dute.

HEMEROTEKA

2015.9.11. UZTARRIA.eus

"Aspaldiko ametsa" beteko dute irailaren 26an Azpeitiko Sagardozale elkarteak eta Gipuzkoako sagardogileen elkarteak: Euskal Herriko I. Sagardo Txapelketa antolatzea. "Aspalditik era honetako txapelketa bat antolatzearen inguruan hitz egiten ari ginen, eta antolatu dugu. Irailaren 26an jokatu-ko da Azpeitian", esan zuten ostira-lean Azpeitiko Añota sagardotegian egindako aurkezpe-lean. Berdura plazan egingo da txapelketa, afalduz, eta afaltzera joaten direnek sagardo denak dastatu eta puntuatuko dituzte, eta bertan aukeratuko dute txapelduna. Afaltzera elkartutakoek, zortzinako taldetan, sagardoak puntuatuko dituzte, eta aurrena zortzi onenak aukeratu-ko dituzte. Ondoren, zortzi horiek dastatu eta erabakiko dute sagardorik onena. Dastatzeko orduan epaile izango diren afarikideek ez dute jakingo zein sagardo dastatzen ari diren, bukaera arte ez dira jakingo loteak zein sagardogilerenak diren.

HISTORIKOKI EGIN IZAN DENA

Historikoki horrelako txapelketak egin izan direla azaldu du Gipuzkoako Sagardogile Elkarteak Unai Agirrek: "1967tik aurrera zenbait txapelketa herrikoi antolatu zituen orduko sagardogileen elkarteak, herri desberdinekin elkarlanean". Orain asmoa, lehen txapelketa egin eta "sare hori berreskuratzeko" dute: "Oraingo hau horretarako lehen harria izango da". Datorren urtetik aurre-

ra, herriz herri egiten diren txapelketak eta sare horretan sartzeko interesa duten txapelketekin antolatu nahi dute txapelketa herrikoia, "sare horretan sarituak izan diren sagardogileen final handi bat antolatuta".

AFARIA

Irailaren 26an izango da txapelketa, aipatu bezala, Azpeitiko Berdura plazan. Afari horretara joan eta era berean txapelketako epaile bezala aritzeko aurrez txartela erosi behar da, 30 eurotan. Txartelak salgai daude Azpeitiko Pastorkua tabernan eta Iraurgi Saskibaloi Taldearen ISB tabernan eta Astigarragan Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen (943 33 68 11). Plazak mugatuak izango dira, 250 lagunentzako tokia egongo da. Afaria bertako produktuekin osatutakoa izango da.

SAGARDOGILEAK

Nahi duten Euskal Herriko sagardogile guztiek parte hartzeko aukera izan dute, aldezturik izena emanda. Baten bat gehiago sar badaiten ere, irailaren 11rako dagoeneko 29 sagardotegik zuten izena emanda: Aburuza (Aduna), Alberro (Hernani), Akarregi (Hernani), Añota (Azpeitia), Astarbe (Astigarraga), Astiazaran (Donostia), Axpe (Markina-Xemein), Bereziartua (Astigarraga), Beltzenia (Urruña), Eula (Urnieta), Calonge (Donostia-Igeldo), Iparragirre (Hernani), Irigoien-Herrero (Astigarraga), Itxasburu (Hernani), Izeta (Aia), Larrarte (Astigarraga), Larre Gain (Hernani), Lizeaga (Astigarraga), Oiharte (Zerain), Ola (Irun), Olagi (Altzaga), Otsua Enea (Hernani), Petritegi (Astigarraga), Rezola (Astigarraga), Rufino (Hernani), Saizar (Usurbil), Setien (Urnieta), Urdaira (Usurbil) eta Zabala (Aduna).



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Kaixo Aylan:

Aurtengo udan ere, ez da berri-rik falta izan Aiurriko ikasturte berriko zutabea osatzeko. Baina, zure gorputxo Turkiako hondartza batean hilik ikusteak barnea astindu eta bihotza ukitu dit, eta beste gertakari eta berriak baztertuz, izanen baitugu denbora urtean zehar gai horiek aztertzeko, urte haserako lehen zutabe hau zuri eskaintzea erabaki dut, Aylan. Bihotza ukitu esan dut, baina pluralean digu esan beharko nuke, zure argazki horrek mundu osoari bira eman baitio, eta auskalo zenbat negar malko isuri den mundu zabalean. Hain baita hunkigarria!

Aylan, hondartzako zure argazkiari begira milaka irudipen datozkit burura; hain polita ikusten zaitut: txukun jantzia, oinetako horiek, praka- txoak, nikia.... Amak, barne tristeziak gainezka, etxea utzi eta noraezean abiatu zinetenean, maitekor jantzi zintuen, hain txukun, hain dotore. Hemengo edozein umetxoren antza duzu. Zuk nahikoa zenuen ama, aita eta anai-arrebak ondoan izatea horien ondoan eta maitasunean seguru sentitzen baitzinen. Naturako elementuek, itsasoa barne, badute zenbaitetan horrelako krudel- tasun kutsua, eta nahiz eta zure aitak ahaleginak egin zure eskutxo bere eskuari lotuta iraun zezan, itsasoak bere indarrez, baina urrikaltasun gutxiz, lotura hori moztu eta barrik utzi zintuen olatuen jostailu gisa, jostailu esan dut baina, agian, ez da hitzik egokiena. Barkatu Aylan. Hor zaude argazkian, itsasoari deika bezala mundu osoak ikus zaitzan. Hilik baina zure izpiritua bizirik dakusat. Hondartzan aurkitu zintuen turkiar poliziak ere, gupidaz beterik, bere semetxo gogorazten zeniola zioen. Nor ez urrikaldu, Aylan!

Halere, beti dago baina bat, eta zure argazkiaren inguruan egon da niri krudela, gogorra eta perbertsoa iruditzen zaidana; alegia Islamiar Estatuak esan du "islamiar ez diren lurraldeetara joatea erabakitzen dutenek bekatu larria egiten dutela, erabaki horrek kristautasunean, ateismoan edo liberalismoan erortzeko ateak irekitzen baitziete". Gainetik! Eurak hasi duten gerra krudeletik ihesi egin

Aylan, siriar haurrari



"Zuk nahikoa zenuen ama, aita eta anai-arrebak ondoan izateaz, horien ondoan eta maitasunean seguru sentitzen baitzinen"

"Populazioa aurretik doa horrelakoetan: elkartasun sentimenduak eraginda, Estatuak eremugitzen has- tea lortu da"

nahi dutenek, zure gurasoak barne, dira errudun. Zer egin zezaketen, Aylan, zure aitak eta amak: irtenbide bakarra han Sirian bizia galdu edo lurralde seguruago batera joan. Gainera, jakin dugunez zure aitak familiartekoak ditu Canadian eta eskatua zuen babes politikoa, baina ez zioten eman. Zer gehiago egin zezakeen, Aylan. Zure aitak adierazpen gogorrak egin ditu: "Eskutik joan zaizkit semeak eta emaztea". "Dena zen iluna, itsasoaren oihuak". Eta zu, Aylan, itsasoan galdu zinen; itsasoak eraman zintuen baina nora? Bizirik gabe Turkiako hondartza batean uzi zintuen abandonaturik, betirako. Abandonaturik, aitak ez ezik. Gorpuak Kobanera, zuon herrira, eramango ditut -esan du- eta han biziko naiz. Badirudi Kobane Estatu Islamistatik libre geratu dela, baina inor gutxik nahi izan du, nonbait, herrira itzuli. Zure aitak, Aylan, zure oroimenean eta zure amarenean bizi nahi du. Gutxienez, oroimen goxoa eta maitekorra izanen duzu.

Gerra guztiak dira gogorrak eta krudelak. Zuona, Siriakoa, alegia, are gogorragoa ikusten denez. El Assaden aurka hasi zen gerra, hor ere sortu baitzen udaberri arabiarra. Ondoren, Estatu Islamikoa sartu zen eta, dena seguruenik areagotu egin zen. Europa orain, egia da, zenbait herrialde ez ezik, esan nahi baita Hungria, nahiko esku- zabal agertzen ari da eta hor ari dira zenbakiak gora zenbakiak behera zenbakiak jolasten. Dena den, beti gertatu ohi den

bezala, populazioa aurretik doa horrelakoetan: elkartasun senti- menduak eraginda, Estatuak ere mugitzen hastea lortu da. Irudi ederrak ikusi dira telebis- tan batik bat Austrian eta Ale- manian. Hungarian, aldiz, lehen aipatu bezala, jokabide lotsaga- rria izan dute, eta esan ere esan dute, hiru urteko kartzela eza- rriko zaiela muga pasatzen du- tenei. Sentsibilitate gutxikoa izan behar du horrelako aitor- pena egiteko! Dena den, Euro- pak babes politikoa emateaz gain egin beharko du hausnar- keta serioa horrelako gerrak gerta ez daitezen. Ez da nahi- koa babesa eta laguntza, sus- traitara jotzen ez bada.

Hemen, Aylan, Euskal Herrian, ni bizi naizen herrian, ez gara asko, baina elkartasuna zer den jakin, badakigu. Berro- gei urteko diktadura bizi izan dugu eta, askok eta askok ihes egin behar izan zuten. Horrega- tik, hemen ere erakundeak zein herritar soilak eskaini dituzte bere etxe eta azpiegiturak zuok etortzen zaretenerako. Babese- rako Udalak ere elkartu dira. Poza sentiarazten du elkartasun hori guztia ikusi eta bizitzeak. Baina, agian, garrantzitsuen- a, Aylan, zuon herrialde horietan sortzen diren gerrak ekiditea da, eta horretarako, lehen aipa- tu bezala, Europak, ere aztertu beharko du bere jokabidea.

Zurera itzuliz Aylan: Oro- imenean izanen zaitugu eta zure adineko haurrekin izanen zara gure artean!!! Musutxo bat Aylan eta adiorik ez... "In Memoriam".



KIROL ALBISTEAK

Gabirondo, Euskal Herriko sega txapelduna

Igande honetan urnietarrek txapeldun handia segan ikusteko aukera izango dute. Harekin batera lehia estuan ibiltzeko prest izango dira honako segalariak: Suharri Irazustabarrena, Iñigo Mercader,

Jexux Mari Goenaga, Andoni Urrutia, Jon Otegi, Mikel Berakoe-txea, Bixente Mitxelena eta Jexux Mari Ormaetxea "Urki". Eguerdiko 12:30etan hasiko da Zabaletako aparkalekuaren gaialdean.

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Familiatik al datorkizu zaletasuna?

J.G.: Etxean, gaztetan, sega hartzeko modurik ez nuen eduki sekula. Aitonak ez zigun uzten, belarra biltzeko agintzen zigun, sega arriskutsua zela esanda. Egia da familian badauzkadala segalari izandakoak, Joxe eta Marialuixa Gabirondo, osaba-izebak ditut.

Herri kiroletan begi ugari zuri begira egongo dira hemendik aurrera...

J.G.: Azkar heldu zaizkit gauzak, azkarregi akaso. Behin koska batera iritsiz gero, zaila izaten da hortik gora egitea. Nahiko lan horri eustearekin! Nolanahi ere, iruditzen zait teknikoki oraindik badaukadala zer hobetua. Azken bi urteetan ondo ikusi naiz entrenamenduetan eta horrela jarraitu nahi nuke etorkizunean. Gainerako segalariak ere prestatzen dira txapelketetarako, eta ikusiko dugu...

Nolako osasuna dauka segak Euskal Herrian?

J.G.: Nahikoa dauka eustearekin. Baserrian derrigorrez segan egin behar izaten zen iraganean, eta horri esker aisa iriteten ziren segalariak. Gaur egun, kirolaria behar duzu izan batik bat. Gipuzkoarrak gara segalari gehienak. Bi modalitatetan jotatzen da gaur egun: batetik, ordu erdi edo eta ordu beteko saiokoa dago, tradizionala; zortzi bat aritzen gara horretan. Eta bestea, ehun metrokoa da, oso esplosiboa da, den-dena oso minutu gutxitan eman behar duzu eta zenbait ezaugarriren arabera puntuatzen da (kantitatea, txu-



Julen Gabirondo txapela eskuan, segalari gisa ezagutzera eman zen Xoxoka auzoan.

kuntasuna, azkartasuna...). Arnas luzeko lana baino errazagoa egiten zaio jendeari, eta egun, hogeita bitik gora lagun dabilta horretan.

Zein da zure entrenamendu sistema?

J.G.: Urrian hasi eta abuztura arte luzatzen da. Prestatzaile batekin hasi orduko asteen sei egunetan aritu beharko nuela esan zidanean, zuri geratu nintzen. Bere esanetara jarri nin-

tzen, hala ere. Neguan, belarrik ez dagoenean-eta, denetik egiten dut, bizikleta, gimnasia, mendian korrika (Adarrako inguruetan)... Belar bolada hasten denean, berriz, segari heltzen diot. Neska lagunaren lehengusuak, otegitarrak, Sollane Enea baserrikoak (Zabaleta auzoa, Lasarte-Oria) dira eta horien lur eremuetan aritzen naiz. Ezagun ditudan baserritarrei ere abisua pasatzen diet, belarra mozteko as-

moa edukitzekotan, niri hots egiteko aurretik.

Egia esan, ahal den tokitik denbora harrapatzen ibiltzen naiz. Neska lagunak laguntzen dit, eta eskertzekoa da hori. Lehen aipatu ditudan bere lehengusu horiek segan aritutakoak dira, eta nahiko gertukoa egiten zaio mundu hori.

Nor duzu prestatzailea?

J.G.: Otegi anaiekin aritzen naiz batik bat. Joxe Gabirondo

osabak ere zerbait erakusten dit.

Definituko al zenituzke zure ezau-garriak?

J.G.: Diziplinatua naizela esango nuke; lehiaketarako konpromisoari serio erantzuten diot, nahiz eta neguan nagia jo pixka bat. Segan dakitenek esaten didate mutil handia naizela, baina gorputzeko baliabide fisikoak ondo baliatzen ditudala. Bestalde, arlo teknikoan asko daukadala ikasteko diote, eta kontziente nahiz ga-bezia horretaz.

Segak ez du irabazi askorik eman-go, noski...

J.G.: Aurtan irabazitako guztia, nirekin ibili den taldeari (zorroztailea, erakuslea, sei sega biltzaile eta kontrajueza) afari bat eta federazioko fitxak ordaintzeko, bestetarako ez. Horrekin esana dago dena. Belardiak eskura edukitzeaz gain, baditu gastuak, bai, baditue-nez, nahiz eta gaur egungo segak ez izan oso garestiak.

Urnietarrek zu ikusteko aukera izango dute hurrengo egun eta asteetan...

J.G.: Bi hitzordu dauzkat, bai, Urnietan. Sanmigeletan 100 metroko lehiaketa izango da eta segazale amorratua ez denarentzat ere ikusgarria izango da, urnietar asko azaltzea espero dut. Xoxokakoa, berriz, urterokoa da. Aurtengo desafioa, hala ere, bi berrikuntze-kin dator: Alaitz Imaz eta biok bikotea osatuko dugu Jon Otegi eta Suharri Irazustabarrena-ren aurka. Bestetik, Joxe Gabirondok erakustaldi txikia egingo du 10-15 urteko gaztetxoek begira, eta horiek segan jarriko ditu.



KIROL ALBISTEAK

Herri Bira eraberrituarekin bete-betean asmatu dute

Hirurehun lasterkarira hurbildu zen partaidetza kopurua, Herri Bira eraberrituan. Aurreikuspen guztiak gaindituta, antolatzaileak pozarren zeuden. Nordic Walking lasteketak ere Euskaditik kanpoko

lasterkari askoren interesa piztu zuen. Bi lasterketetan minutuko isilune hunkigarriak egin ziren Iñaki Aranzadi apaizaren omenez. **Argazkiak, bideoa: Aiurri.com**



XIX. HERRI BIRA. SAILKAPENAK:
10 Kilometroko lasterketa:

1	Raul Gomez	33:22	Lasarte
2	Ibai Alba	33:47	Hernani
3	Andoni Olazagirre	34:06	Hernani
4	Aitor Rubio	34:12	Orio
5	Juan Luis Gomez	34:21	Urnieta
6	Asier Martinez	34:30	Urnieta
13	Xabier Zaldua	38:01	Urnieta
14	Jon Ramos	39:00	Urnieta
21	Peio Alkorta	39:35	Andoain
24	Unai Lizeaga	39:51	Urnieta
25	Ivan Sardon	40:03	Urnieta
27	Ander Zubizarreta	40:21	Urnieta
32	Periko Juanikorena	40:32	Urnieta
39	Raul Fradejas	41:13	Urnieta
40	Gorka Pardavila	41:22	Urnieta
41	Mikel Olano	41:36	Urnieta
44	Imanol Garcia	41:51	Urnieta
47	Jon Labaka	42:04	Urnieta
59	Dioni Agredano	43:32	Andoain
64	Iñigo Juanikorena	44:09	Urnieta
68	Mikel Garmendia	44:28	Urnieta
74	Mikel Bergara	45:50	Urnieta
82	Rodolfo Parra	47:22	Andoain
83	Ignacio Sorozabal	47:31	Urnieta
87	Jonathan Lopez	48:19	Urnieta
90	Ion Koldobika Iribar	49:12	Urnieta
92	Borja Granado	49:30	Urnieta
93	Almu Salas	49:32	Urnieta
96	Emaitz Albizu	50:30	Andoain
97	Maidor Vaquero	50:32	Andoain
99	Benjamin Rodenas	50:44	Urnieta
101	Cristobal Flores	51:07	Andoain

107	Mikel Collantes	52:35	Andoain
12	Idoia Esnaola	53:44	Urnieta
14	Vicente Carmona	54:52	Urnieta
115	Oier Egaña	55:24	Urnieta
116	Begoña Villas	56:27	Urnieta
117	Ramon Fuentes	56:29	Andoain
121	Idoia Fernandez	58:02	Andoain
122	J.Francisco Venero	58:03	Andoain

5 Kilometroko lasterketa:

1	Ibai Beraciert	17:06	Zarauzt
2	Oñatz Gonzalez	17:33	Andoain
3	Asier Aranburu	17:40	Urretxu
4	Xabier Barberena	18:22	Urnieta
7	Alberto Grinche	19:08	Urnieta
10	Iñaki Garciaarena	21:20	Urnieta
11	Eneko Aldaz	21:45	Andoain
12	Ramon Goikoetxea	22:31	Urnieta
15	Joseba Unanue	23:41	Urnieta
16	Ainhua Ziaurritz		Urnieta
18	Ekaitz Ledesma		Urnieta
19	Asun Santervas		Urnieta
21	Rachid Salam		Urnieta
22	Jon Perez		Urnieta
25	Ainara De Miguel	25:44	Urnieta
26	Maite Carnero	25:50	Urnieta
27	Eñaut Ayerza	25:52	Urnieta
28	Iñaki Otaegi	26:00	Urnieta
29	Martin Arruti	26:34	Urnieta
30	Daniel Lopez	27:03	Urnieta
31	Mamady Souneloko	27:51	Urnieta
33	Ernesto Montes	28:10	Urnieta
34	Irati Zinkunegi	28:14	Urnieta
35	Larraitx Errandonea	28:17	Urnieta

36	Iñaki Baños	28:20	Urnieta
37	Ainhua Imaz	28:22	Urnieta
39	Izaro Pellejero	29:05	Urnieta
40	Izaro Egaña	29:24	Urnieta
43	Izaro Perez	29:31	Urnieta
44	Arantxa Mercader	29:32	Urnieta
45	Maika Moriche	29:52	Urnieta
46	Malen Pereira	29:57	Urnieta
47	Ruth Bermejo	30:03	Urnieta
48	Ana Gabirondo	30:10	Urnieta
49	Sara Morales	30:34	Urnieta
53	Arantza Miguez	31:06	Urnieta
56	Manoli Esperilla	32:27	Andoain
59	Monica Mateos	33:44	Urnieta
60	Loli Molina	33:49	Urnieta
61	Marisa Iturbe	33:51	Urnieta
62	Nerea Alberdi	34:02	Urnieta
65	Maria Lesaca	34:30	Urnieta
69	Mirari Mujika	34:58	Urnieta
70	Agustin Herrero	39:04	Urnieta
71	Iñaki Montero	40:47	Urnieta
72	Arantxa Corbelle	44:01	Urnieta
73	Pili Oriondo	44:06	Urnieta

Nordic Walking Bira 10km

1.	Pablo Ariza	1:03:28	Azagra
2.	Bernd Goldschmidt	1:03:29	Alfaz Pi
3.	Xanet Goenaga	1:09:09	Billabona
4.	Marijo Villalba	1:10:57	Hernani
5.	Arantxa Pinedo	1:11:26	Alegria
18	Sergio Labrador	1:18:17	Urnieta
32	Reme Gallego	1:31:22	Urnieta


Sailkapen osoa: Herrikrosa.eus




Raul Gomez hasieratik nabarmendu zen.



Juan Luis Gomez, lehen urnietarra.




Ibai Beraciert zarauztarra lehena izan zen lasterketa laburrean.



Ana Maria Gonzalez errenteriarra, lehen emakumezkoa.



Lehia bizia izan zen Nordic Walking lasterketaren buruan.



Xanet Goenaga Zanpatuz taldeko kideak lasterketa bikaina burutu zuen.



KIROL ALBISTEAK

Etxean bertan geratu da Ricard-Begiristain saria



Memorialak emozio eta zirrara berezia pizten jarraitzen du senideen eta UKEko eragileen artean.

Aurreko larunbat goizean Urnietako futbol zelaian **Hernani, Ostadar** eta **Urnietako** futbol taldeen artean Ricard eta Begiristain memoria-laren edizio berria ospatu zen. Aurtengoan sari nagusienak etxean geratu dira, gainera. Txapelketa irabazteaz gain, jokalaria onenaren saria **Javier Pastorrek** eraman zuelako.

Zorionak, beraz, urnietarrei. Denboraldiari hasiera emateko modu bikaina.



Jubenil mailako denboraldiari ekin aurretik jokatzen den partida da.

Infantil, kadete eta jubenil mailako eskubaloi saioak

Larunbat honetan, irailak 19, Allurralde kiroldegian eta Arrate pilotalekuan aurrendenboraldiko bosgarren txapelketa jokatuko da. Txapelketan lau klubetako hamahiru talde lehiatuko dira, berrehun jokari inguru. Nola ez, Leizaran eskubaloiko infantil, kadete, jubenil eta senior mailako taldeak lehiatuko dira. Partidak 09:20etan hasiko dira, iluntzera arte. Aurkariak, aldiz, Arabako, Bizkaiko eta Kantabriako aurkari bana. Honakoak:

• **Corazonistas (Gasteiz)**

Infantil, kadete, jubenil eta senior mailako taldeak.

• **Corrales (Kantabria)**

Infantil, kadete eta jubenil mailako taldeak.

• **Urdaibai (Bizkaia)**

Bermeo eta Mundakako Kadete mailako taldea.



Allurralden partidak 09:20tan hasiko dira, larunbat honetan. Arraten, berri, 10:00etan. Senior mailan Leizaran Ernio-Corazonistas partida 19:25etan hasiko da.

Euskaldun txapelketa irabazi du Mikel Iturriak



Afizionatu mailako sari garrantzitsuenaren jabe da Mikel Iturria urnietarra, astear-tean Altsasuko sari nagusian Mikel Aristi taldekidearekin erakustaldia eman eta gero. Euskadi, Lizarte eta Rural Kutxa taldeen arteko lehia estua izan zen, lasterketa eta txapelketa bera jokoan zirela-

ko. Rafael Marquez Lizarteko txirrindularia zuen aurkari zuzena, baina Altsasun Euskadikoek behintzat nagusitasun handia erakutsi zuten. Iturria hogeitaz aldiz igo da podiumera denboraldi honetan, eta datorrenean profesionalen artean aritzeko esperantza ez du galdu. Zorionak!

Euskaldunak lidergotzan ekin dio denboraldiari

BETI GAZTE 0
EUSKALDUNA 3

Ohorezko Erregional maila.

1. partida. Zelaia: Lesaka.

Hasierakoa: Josu Domínguez, Gorostidi, Gorka, Julen Loidi, Arteaga, Goikoetxea, Barandiaran, Álvaro Toledo, Extremera, Artola eta Chouza. Partidan zehar: Martin, Placencia, Arizaga eta Richar.

Maila berrian hasiera ezin hobe izan du Iñigo Gurrutxagak zuzentzen duen taldeak. Garaipen argia eskuratzearaz gain, sailkapenaren gaialdean hasi dute denboraldia. Lesakarrak etxean ari zirela eta, joko azkarra egingen ahalegindu ziren. Euskaldunaren defentsarekin topo egin zuten ordea.

42. minutuan Euskaldunak



penaltia huts egin zuen. Bigarren zatian sartu zuten lehen gola, 63. minutuan. Artolak sartu zuen gola, Estremerak lapurtutako baloia-ri esker. Bigarren gola bikaina izan zen, Barandiaranek 73. minutuan sartu zuena. Partidaren amaieran Chouzak sartu zuen hirugarrena.

Ganbara saski taldearen deialdia denboraldi berrirako

Aste honetan ekin diote denboraldi berria prestatzeari. Oraindik ere jokalaria berriak hartzeko prest daude, maila guztietakoak: lehen urteko

infantilak, bigarren urteko infantilak, kadete eta junior taldeak. Allurralden elkartu ohi dira. Informazioa: agono@telefonica.net

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com. **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

IRAILAREN 17TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- Zinema saioak eskainiko dituzte berriro Andoainen. Ohi bezala, ikuslearen eguna astelehena izango da. Helduentzat: **Ricki**. Larunbata, 19. 19:30/22:00. Igandea, 20. 19:30. Astelehena, 21. 19:30/22:00. Haurrentzat: **Pixel**. Larunbata, 19. 17:00. Igandea, 20. 17:00.

Batzarra

Andoain

- Zuena elkartearen bazkideen batzar orokorra, Extremadura kaleko egoitzan. Irailak 17, osteguna. 17:30.

Lehiaketa

Andoain

- Euskarazko film laburren lehiaketa.** Bakarka edo taldeka, lanak bi mailatan sarituko dituzte: 16-18 urte bitartekoak eta 18tik aurrerakoak. Lehiaketan parte hartzeko aukera urriaren 5ean zabalduko da.

Urnietan

- XIX. pintura lehiaketa.** Izen-ematea Lekaion egingo da, egunean bertan 09:00etatik 10:00etara. Sariak 750, 450 eta 300 eurokoak hurrenez hurren. 14 urtez azpikoentzat 50 euroko balioa duen saria. 09:00-10:00 Izen-ematea. 19:00 Sari-banaketa. Irailak 20, igandea.

Farmaziak

Eskualdea

- Guardiako farmaziak. **Andoain:** Arzallus, asteburu osoa. **Urnietan:** Castilla, Hernani. **Eskualdea, gauez:** Etxebeite. Elkano, 9. Hernani.

Bertso afaria

Urnietan, Oianume

- Miela batzordeak antolatuta, **Agin Laburu** eta **Anjel Mari Peñagarikano**ekin. 21:00. Oianume. Irailak 19, larunbata.

Irteera

Andoain

- Santa Krutz erretirodunen zentroak antolatuta, Zangotzara irteera. Hamaiketako, bisitaldia, bazkaria eta arratsaldean Sos del Rey Catolico herriari bisitaldia. Irteera: 09:00, Olagain. Irailak 19, larunbata.

Batusalsa

Urnietan

- Buruntzantzan taldeak antolatuta. Egitarau osoa gehigarri berezian. 16:30-19:30 Kubako saltsa tailerra. 20:00-22:00 Dantzaldia Son Kandela musika taldearekin. Irailak 19, larunbata.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- “Itsaspeko bihotzak” erakusketak irakurtzeko zale-tasuna sustatzeaz gain, haurren artean genero berdintasuna eta hezkuntza lantzea du helburu. Irailaren 22tik aurrera.

Musika

Andoain, Bastero

- Opus Lirica, soprano eta tenore ezberdinen parte hartzearekin. “La Flauta Mágica”, “Don Giovanni”, “Cosi fan tutte”, “Las bodas de Figaro”, “La Traviata”, “La Bohème” eta hainbat aria barnerraten dituen kontzertua eskainiko dute. 20:00. Auditorioa. Irailak 25, ostirala.

Iñistor Jaia

Urnietan

- Juxto Egaña *Urnietar prestu* izendatuko dute. Toka txapelketa, bazkaria, bertsolariak, omenaldia eta irrintzi lehiaketa. Bazkarirako txartelak Kantoin eta Gurian salgai, irailaren 24ra arte. Irailak 27, igandea.

Matrikula

Andoain, Urnietan

- Helduen eskola ikastetxe ofiziala 18 urtetik gorakoentzat da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren esku dagoena: Idazten edo irakurtzen ikasi, Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortu... Hezkuntza ez arautuan euskara, ingelesa, informatika. Hernani: Antziola, 62. 943 335 318. Andoain: Kale Nagusia. 943 304 021.

Andoain

- AEKk jakinarazi nahi du 2015-2016 ikasturterako matrikulazio garaia zabalik dela. Klaseak urriaren 1ean hasiko dira eta ekainaren 22an bukatuko dira. Matrikulazio epea zabalik: Extremadura Kalea, 5. 943 59 17 04.

Urteurrena

Urnietan

- Presentacion de Maria ikastetxearen 25. urteurrena. **Irailak 18, ostirala:** 19:30 Triki-potea: Guria, Zaldu, Egur. **Irailak 19, larunbata:** 10:00-12:00: Ibilaldi neurtua. 11:30-13:00: Jolasak. 12:30-14:00 Paella lehiaketa. 14:00-15:30 Bazkaria. 14:45-15:45 Tailerrak. 16:00-17:00: Zumba. 17:00 Amaiera.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Ekainek gure etxeko txikiak urtebete egin zuen irailaren 17an. Zorionak ttiki. Muxupotolo bat Oihan, lntza eta etxeko-en partez.

ANDOAIN

ZORIONAK



June Etxeberria Arratibelek 8 urte egingo ditu irailaren 28an. Ondo ondo ospatu. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu. Etxekoak.

ANDOAIN

■ **ZORION AGURRAK:**

Aiurri astekarian, oso erraza da. Eta dohainik. Bidali garaiz, eta ondo zehaztu herria ere. Emaillez: andoain@aiurri.com urnietan@aiurri.com Whatsapp bidez: 619 163 537.

Buruntzaldeko txapelketa

Irailak 19, larunbata

Lasarte-Oriako kiroldegia: 17:00 Usurbil-Andoain 18:00 Urnietan-Lasarte Oria **Irailak 20, igandea. Finala:** 11:30 Andoaingo kiroldegia.



Igeriketan trebatzeko aukera

Buruntzaldea IKT taldeak dagoeneko zabaldu du ikasturterako izena emateko epea. Gurasoei mezu zuzena bidali diete: “Zure haurrak igeriketa talde-

ko partaide izan nahi badu, oraintxe du aukera! Busti gurekin!”. Informazio gehiago: 696 506 632 (Borja).

BERTSO AFARIA
Urnietan 2015eko Sanmielak

IRAILAK 19
21:00etan Oianumen

25€

Antzezlea: Mikel Arregi
Antzezlea: Garazi Usandizaga
Antzezlea: Mikel Arregi
Antzezlea: Garazi Usandizaga
Antzezlea: Mikel Arregi
Antzezlea: Garazi Usandizaga